Bestaldean

Itxaro Borda

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1991 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1991ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

AINTZIN SOLASA

begirada bakoitzak bluesaren kolorea zinan
blues zaharrak murmuratzeko gutiziak
zaplastatu gintuen segunduan
eder aurkitu hintudan edo gogoratu nindunan
erran beharreko hitzen erdiak ez nituela
ahozkatu —my home town...

Leihak uko egiten dio leialtasunari. Hutsalkeria eta dena hutsalkeria, Eklesiastesak ziona. Sarri hitz-aspertuak ere uko egiten dio ezer esan beharrari, literaturtasuna aitzaki hartuta.

izkriba zkin poesiak
neguko egun hotzetan
suntsialdeko hesiak
suak erre bihotzetan

Eguneroko albistegiak entzun eta egunkariak irakurtzearekin haietan gure arrastorik topatzea ezinezkoa izan zait beti, hasi ere gezur handi batekin hasten bait dira, sinestarazi nahirik horren gertaera ez-

berdinak urte ezezean egun berekoak direla, historiak bateratzen dituela, alegia, bazter guztietakoak, eta burura etortzen zaizkit Archuk Euskal Herriari eskaini zizkion hitzak:

> *«Igortzen dautzut, herri maitia,*
> *gezurtto batzu, hau da egia».*

nahiz eta gertaeren egiatasuna izan, bestelakoa beraz, gure gezurra.

> *oraindik nabil Du Bellay plazan igandez*
> *nik ez dakit noren edo zeren bila, baina*
> *nabil, barkamen gaberik kuskatzen nauten*
> *jende presatuen tartean; iturriko uretan*
> *nostalgiaren hotzetik horditu nahi nuke*
> *kaskoa gaueko amets gaiztoaz garbitzeko*
> *egunaren hats epela lehortu baino lehen*
> *so far away from me abestiaren ankerraz*
> *betetzen ditut izotz hitsen gordalekuak*
> *munduaren azkenak ez dezan inoiz sinets*
> *zoriona hain erreza zenik, hain arraroak*
> *amodio bahituen hatzak karrika irekitan*
> *aurkitzea, malkoaren sahetsean nekaturik*

heriotzaren hurbileraz isilik intzirika

Aldiz, «oraindik nabil Du Bellay plazan igandez» irakurtzean, alfa eta omegarik denentz arakatzeko hitzak eta isilgordeak miatzen, badakit badela beste nonbait gure arrastoaz lerroak osatuz, urmahel bazter lainotsuetan idazten ari den bat, aberritzat, barbariaren barrutietatik kanpo, garaietan abestia daukana, gertakizuna bera baino urrutirago hedatzen dena, aidetan uhinik baratzen utzi gabe. Orduan lanbroaren gisako, guztionak diren hitzen artean topatzen dut solas-ondo hau idazteko arrazoirik, zeren, aitor dezadan, Itxaroren poemak irakurtzean ez dut sekula aintzin-solasik egiteko premiarik sentitu, baizik eta berriro nere hitzak berak emandako adierarekin berrirakurtzekoa, bere hitzak nereetara biltzekoa eta, askotan, baita berriz idatzi beharra eza ere erraietan, esan nitzakeenak, plau-plaua eta behar den mantsotasunaz aurkitu izanagatik.

SONGS FOR SUSANA
X
barbariak larrutu ipuilarretan sarri
lanbroaren hitzak ahoratuz

ekaitz haziak
ereiten ditinagu
eta mamuek horzkatu neskato ttikien
matel zaurituak sendatzeko
aintzira bila
abiatuko gaitun.
tunel hertsietan gordeka gabiltzanok
jakingo dinagu
azkenean
itzalak irakurriz
zeinen den gozoa
lainoaren epela.

Iritsi zaigu sustraiak hodeiekin lotzen dituen liburu hau. Etsipenak, milaka urtetan gure garun eta bihotzak zeharkatu dituen haize hotzak, berokia baino eman ez badigu ere, hemen, iraupenak behar duen egonarria aurkitu du ama fosildu, mineralizatu egoten, haize-erauntsiak Pariseko exilioan astindu duenean. Herriaz gabetuak erroak behar ditu, eta Itxarok aurkitu du harpe mineraletan ontzen den garai bat, hauts jaio eta hauts bihurtzeak ernegatzen duen barbaria abaila-kolpez suntsitu alde. «Bestaldean»en errepikatzen den hitz bakoitza bizitza eta oroitzape-

naren ezpal da: minari aurre egiteko kojuru; eta zumitzezkoak ditu poemetako esaldiak denak, zaildu eta malguak, exilioaren ipar-haizeak lurpera ez duen irrikizioa bezala; eta hitzek daukate, zumerika bailiran, ur-bazterretako lurra, urak eramatea utzi gabe.

Uholdeak pasa ditun
heriotz gutiziak oro kulunkatuz
eta nehor ez daukazu
kaiertze populutsu honetan zain
asmatzen zenukeen
norbaiten irrian
berotuko zela zure ezpainen
hormadi minberatsua
eta nehor ez daukazu
bidaia nekagarria agertu zaizula
aitortzeko.

aitortzen du Itxarok liburuaren amaieran, eta silabaz-silaba egindako kapazoan bildu ditu zorion ahaleginak. Ondoan ez duen aberria, ahazteko urrutitxo dauzkan ainara eta amodioak egunerokoari ebatsiz egiten du bere garaia. Epikoak dira, iragana oraina eta etorkizuna elkarlotzen duten poema luze horiek,

mina alferrikakoa ez dela sinistuz bizitza eta heriotzarekin poema liburua artezten duten «alpha eta omega euripean», «Memento homo qui pulvis es et in pulverem revertis non omnis moriar credo», «Songs for Susana».

ZALDIBIARANTZ
SEASKA KANTA
munduaren norantza
beldurrak derama
heriotzaren dantza
laster gure zama
haizea da etortzen
zaldibi aldetik
hitza ere erortzen
euri sartaldetik

Tartean, atzetik, aurretik, —zopako guztiak jan ezin— poema labur andanan airatzen ditu hasgorapenak, Euskal Herrian aspaldian egin diren lokanta ederrenak, oroitzapenak bildu eta sustatzeko lerroz-lerro zabaltzen diren paisaiak, ibai luzeenak bezala hiri guztiak zeharkatzen dituzten injustizia eta ankertasunaren burrunbak. Hauetan itxaropenaren aiherraren

oihala urratzen du, nahiz eta minez igerri etorkizunari data jakin bat izendatu ondoren ere malkoak ixuri beharko direla lur zimeletan, ez bada behintzat agertzen nonbait bi ibaiek gurutzatzen duten hiri bat edo mixeria karreatuko duen trenbiderik ez daukan herriren bat.

Tere Irastortza

irauten lagundu gaituzten mendi, soro,
iraztor, ainara, sorgin eta aztiei hitz
amoltsu hauen eskaintza maitemindua.

Itxaro Borda
Oragarre, 1991ko martxoan

izar xuriz mila dago
iparretik hegoraino
nik zu zaitut maiteago
ilargiak gaua baino

Herrikoia

Si nous continuons à parler le même, si nous nous parlons comme se parlent les hommes depuis des siècles, comme on nous a appris à parler, nous nous manquerons. Encore... Les mots passeront à travers nos corps, par-dessus nos têtes, pour aller se perdre, nous perdre. Loin.

Luce Irigarai

eta loa
begietaraino jausten ez zaidanean
hartu bizidunen azken argitalpena
eta abiatzen naiz
Ebaren bila

Tere Irastortza

Aberria nahi dugu haize hegoaren hegaletan
dudatzen pairatzen ikaratzen edo
fresnesko patioetan paseiatzen
gerontokrata manatzalerik gabe
egunkaria tabakoarekin batera erosten eta
haurrak ikastolara laguntzen
leihorrak edertzen dituzten brumetan.

aberria nahi dugu lurraren desiraz hantzen
oheak alargun geldi ez ditezen edo
zizare pikatzen antzera ferratzen
amorezko baratzean azak landatzen
trenetan auhenez lehertzen baina
mendeetako larderiari ez obeditzen
gailurrak berotzen dituzten brumetan.

aberria nahi dugu lanbroaren azpilduretan
miseria ontasun komuna delarik edo
karriketan barrikadak eraikitzen
ostatuetan munduaren oraina margotzen
zigarretak biltzen oldartzen

nahi dugu egunkaria eta tabakorik
merkeena globoa sutan jartzeko
ibaietarik altxatzen diren brumetan.

Alabaina
mendi urdinen maldan
elearen musika
mimosa abarretan zintzilik
aurkitu genuen.
eguzkiaren ordez
euri samurrak espero
genituen.
hitza bilatzen genukeen
ondikotz
ilargi erdiaren bihotzean
edo ainara kuttunen
hegaldi bizietan.
eta soilik
txirriten kantak
zituen belarriak
zaplastatzen.
solasaren bakarminak
haragiak kiresten
zizkigun minutuan

ohe separatuetan
ezarri
gintuzten.

ALPHA ETA OMEGA EURIPEAN

Garrantzi handiko zerbait
errango dizut
jendea kanbiatzen da lekuz
aldatzen denean.
NAZIM HIKMET

I

Hasera batean —alpha— nostalgia zunan
munduaren andre eta jabe
euri egunen lerroan hantzen ziren
bihotz urratuen sakonetan.
hasera batean —beta— beldurra zunan
nostalgiaren zutabe bermakor
orduak ordutei ortzaizera begira
gelditzen ginen ondartzetan.
hasera batean —gamma— esperantza zunan
beldurra kontrabalantzatzen zuen
zauri bakarra karrika hutsetan
ibiltzen ginenetan.

hasera batean —delta— airatzeko gogoa
hedatu zunan urtxoak zeru mutuak
trebeskatzen miresten genituen
larrazkeneko eguerdi zabaletan.
bukaera batean —omega— maitasuna zunan
eske abiatzera bultzatu gintuen
indar erraldoia.

II

hilerrian izan ginen omiasaindu bezperan
berriro ireki ziren umeontziak
artadi lehorretan
jori beroak barreiatuz.
berriro ireki ziren umeontziak
eguzki zurailen arpegiak alaitzearren
oroitzez deika.

III

ilargiarekin mintzo ziren herrikoak ginen
eta gure alabei hiztegi pobreen baheak

tinka arazten genizkien
ilargiarekin mintzatzeko gisan,
haiek berdinki jakin zezaten ilargiak
geroaren hautsa dakarrela
geroaren hautsa edo iraganaren mina
orainaren ezaxola.
ilargiarekin mintzo ziren herrikoak ginen
eta gure alabak gerritik hartzen
genituen zelaietako brumetan
uhar xumeen epela maitatzen
ikas zezaten.

IV

ai itsas gainean lertsunak iragaiten
ez bagenitu begiztatu
ez genuke horrelako presarik
lasterkada antzuetan higatzeko.
ai itsas gainean lertsunak urruntzen
ez bagenitu segitu
ez genuke horrelako hotzik
ahurrean atxikitzeko.

V

begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
blues zaharrak murmuratzeko gutiziak
irakurtzen genitinan
graffitiz estali horma ilunetan.
begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
buruzokoan izenak eta izanak oro
mailuka aritzen zitzaizkigun
lantzar estimatuan.
begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
gerla likitsa deklaratu ziguten baino
lehen entzun genezazkeen kantak
tabernetan berraditzean.
begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
blues zaharrak murmuratzeko gutiziak
zaplastatu gintuen segunduan
eder aurkitu hintudan edo gogoratu nindunan
erran beharreko hitzen erdiak ez nituela
ahozkatu —my home town...
begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
ostatuetako leihoen lurrinetan atzoko
kideen arpegiak behatzaz marrazten

saiatzen ginenean.
begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
eta presaz agurtzen genitinan
gure lagunak
badakizu Egunkaria!
esateko asko daukagu...
a bai Egunkaria eta itsasorantz bidaia
urratsak dudaz blai.
begirada bakoitzak oroitzaren kolorea zinan
hilerrietan eihartzen diren loreen kolorea.

VI

lantokietan poesiak irensten ditugu
ogitartean
presaka
kasik ahalgez
neke baita hitzetan onhartzea
zenbat eskas zaituztegun
alabak
amak
ahizpak
presaka

kasik negarrez
eta elurra desiratzen dugun
ilunean
gabiltza askatzen
belar usaineko mihiseetan
bular beltzak bilatzen
ausentzia.

VII

haragi malatsak erraiak erretzen dizkit.
ihesaren linea makurra.
exil barnekoiaren jabea.
haizearen murmuruak.
beilari gaueko mezuaren zain.
karrikako burrunbak.
aditzik gabeko ekintzak: klash!
euriaren pare.
ments zaitut.
ments zaitut.
ments zaitut.

VIII

gauak zilar direnetan begiratzen
dinagu zeruari edo jarririk
egoten gaitun ortzearen hegietan

hego zuria sartzen delarik zelda
uhargietan huntzak samur
aditzen ditun hormaren eremuetan

ez gaitun bakarrik gau zilarrean
izarrei so gaudenak euria
etzi etorriko delako esperantzaz

eta beti heldu dun lanbro eztiaz
amodioaren bustia
hezur kiskalduak barreiatzearren

ondarrikan ttanttaka harrapatzen
gaitin loak antsiak bezala
elkartasun mantsoen zurrunbiloan

IX

papogorrien kanta ederrak
entzunen ditun eta neguan
begira itzan baso eperrak
elur zurien amets pleguan

ikusiko dun zorion bihotz
ihesi maite hautala zinez
egin dezala kanpoan izotz
haiduru nagon amore minez

ainarak aire hegaz joanak
larrazkeneko haize beroan
ez dakin beti neke doanak
non den eztia bere geroan

bilatu hauta ibai ertzeko
artadi edo pago haltzetan
auhen batean desagertzeko
udaberriko irri galtzetan

mineralaren amen errautsa
aurki dezaken izar artean

hats bahitua euria hautsa
igari dela arrats partean

ezpain mutuen ikara hitza
ortzadar eske doala gauez
hator laztana ekiak bitza
goiz akituak baketu lauez

ikusiko dun zorion bihotz
ihesi maite hautala zinez
egin dezala kanpoan izotz
haiduru nagon amore minez

X

euriaren desira menpera dezakeen trenak
baino balio gehiago ote du
ausentziaren argizagiak?
neguko
neguko
neguko
presentziarik zergaitik bilatu
izar ihintzaren nostalgiaz beterik
dauden elurrak estali bazterrean?

XI

ibaiak kurutzatzen diren hirian
aurkitu hautenean
itsasorantz abiatu gaitun.
hiri so geratu naun
—o nolabaiteko maitea!—
eta hire begietan uhainak
lehertzen miretsi ditinat.
ibaiak kurutzatzen diren hirian
aurkituko garea
berriro?

XII

geltokietan bazaude garardoak edaten
jakingo dut
elurrik ez dela mendi gailurretan
elurrik ez dela ahur zimurtuetan
gesaltzen denik
mendekuaren gauetan.

besarkatuko zaitudanean
menturaz
malkotan urtzeko gogoa,

XIII

hurbiltasunaren hunkimenik ez edukitzeak
damuz ordezkatu dorpearen zamaz
karrastatzen gintuen.
urrunak ziren artadiak, urrunak ere
haur abestien kristalak,
urrunak azkenik oroitzapenaren mugak.
huelga egunetan hiria zeharkatzen genuen
gero: ai banintz!
ai banu...
iraztorretako bi zuhaitz bakartien gisan
hiria zeharkatzen genuen huelga egunetan

XIV

desertuetan esperatzen ohituak garenok
biharko iluntzetan banan bana

zutituko gara
sablea urratsez markatzearren.
haurrei airatzen irakatsiko diegu
ortzearen ispilutan dilindan dabiltzan
izarren dantzan kulunkatzeko
gai izan daitezen.
desertuetan esperatzen ohituak garenok
erabat aldatuak atzemango gaituzte
hiri aberatsetako harresietara
bideratuko garenean
eta apalik erranen dugu:
—ez gara aldatu
espero denborak gaitu
higatu.
nehork ez gaituzke sinetsiko.
desertuetan esperatzen ohituak garenok
atorrak urratuz
papoetako sarraski horbainduak
erakutsiko dizkiegunean
irriz hasiko dira.
bakardadearen usaina usnatuz urrunduko
zaizkigu aitortuko dugula
bakardade biluziaz baizik
ez dugula iraun

desertuetan esperatzen ohituak garenok
eta o maitea!
kantatuko dugunean
haizearen musiketan bermatuz
ezti gogoz geneuzkan sohakoak
hauts bihurtzen ikusiko ditugu.
baina euriaren mingaitzean bustiko gara
betikotasunaz erretzeko.
desertuak lur moldatu gaituelakoan
lohiaren zalantzaz jantziko gara.

Ankerra bahitu zutenean ama etsituak
zutitu ziren harpe gordeen
atarietan
jendeei begira harriturik bezala.
maldan behera gero
bizitzaren lehen urratsak eraman
zituzten alaben eztiaz
ahurrak loratzen.
ohituak gara!
betiko leloak
hitzak errepikatzen
aditzetan traukatzen.
ohituak gara!
minaren trukean ez genuke zorionik
ardietsi behar...
nahiago hil!
ohituak gara.

Askatasuna nahi zuen herrikoak ginen
mendearen barbaria arruntaren mutilek
sufrantzari uztartu gintuzten artean.
legepean zamaketari trebe bihurturik
irri gogoa desagertu zitzaigun bihotz
ustelduen barnetik, eta gosez ginauden
ogia ez baitzen usu errez partekatzen
madarikatuak zirenen mundu herrestan.

eta gosez ginauden buruarekin hormetan
kolpeka, begi ondoan odola ixuri aldean.
mendeku hitsen moduan gero hurrupatzen
genuen negarraren hotsa ahanzterainoko.
heriotza gure bigarren gutizien bidean
esnatu zen azkenik, gosez ginaudelakotz.
hatsaren erreinuan zintzilik gelditzeko
minutuan eguzkia agertu zen ortzaizean.

Bakarrik nabil kale hutsetan pentsatzen
nekez direla urak isurtzen
adiskidantza zaharren itsasoraino.
ibaiak lehorrik daude.
argirik ez da ageri.
denbora urratzen doa haragi minberak
astinduz.

bakarrik nabil kale hutsetan pentsatzen
nekez dela gaueko karrasia
entzuten munduaren bazterreraino.
eskuak hertsirik daude.
etorriko ez denaren zain.
esperantza galtzen doa bihotz hantuak
zirikatuz.

bakarrik nabil kale hutsetan pentsatzen
nekez ditugula hitz ahantziak
hedatzen maitasunaren mugetaraino.
ezpainak ikaran daude.

behar zaitut sahetsean.
amodioa loratzen doa sohako urdinak
suntsituz.

Ba ote dira oraindik gaztigurik gabeko orduak
gauaren minean gabiltzalarikan
hiriak zatikatzen dituzten abenida
desolatuetan barna?
gaztigurik gabeko orduak eta hosto lehorrak
espaloi bustietan
euri nahiaren haize hotzak
salers gostuak ahosabaietan.
gaztigurik gabeko orduetan desiraren ahurra
irekitzen zaigu erraten dugularik
jendeak maitasuna du eskas
malkor ordezko ohe hutsetan.
zergatik ez dugu elkarri aitortzen guhaur
garela arrunt mentsean
eztitasuna amets bihurtzen den
gaztigurik gabeko orduetan.

Bele beltza
dabil hegaletik minez
lorez estali
gerezi sailen gainetik
airean hegaletik minez.

mirets zaitzaket
ardura
orlegitasun samurrean
udaberriko hats epelean
atzoko guduka
antzuetan
luma bi galdurik
airean hegaletik minez.

behatzaz
segitzen dugu
bele beltza
zeru betean
kasik erortzen
gu ere

txori izateko sortu
ginen baina
soilik
ametsa dabilkigu
airean hegaletik minez
airean hegaletik minez
airean hegaletik minez.

BERDIN JAURES 142

Taloaren gostuaz alegeratzen ziren ahosabaiak
izarretan loak hartzeko gogoz
betetzeko zorian ginaudelarik.
euria ari zen astiro gaueko karrikak lainotuz
eta nostalgiaren artadiak
amodio kaxkarrez laztanduz.
geltoki auzoko ibai zabala minberatasunez edo
etsiturik zegoela genion
nehoiz itzuliko ez ginelako
berdin (blues).

alta iparla gailurra gure zain zegoen isilik
lasterrak beharko genituen
oraino saien sahetsera heltzeko.
txoriak ginen ainaren ahaideak kartzela hots
erreka lehorren lagun zahar
aditz trinkoaren menpeko.
iragana taloartean irensten genuen arratsean
auhenez suak zizkigun begiak
erretzen hatsa ere erreko
berdin (blues).

mendigorrietan xamangoa jan genukeen etxekoa
bailitzan amak egin salda
beroaren ondotik bezala.
telekomunikazio modernoaren gazteluko bideak
azaltzen zenizkigun gero par suite
d’encombrement votre appel...
bakezko eremuak bihurtu ziren trenak metroak
autobusak bakardade uhargiaren
gerizatzeko harpe ilunak.

han etzen eskasik maitia zu baizik eta haize
hegoa
berdin (blues).

Berlingo horma eroriaren lau harri koxkor
dauzkanagu eskutan
amnesia hedatzaleen arpegira botatzekotan
prest
lotsarik gabe
Dolores
erraiten hunan ez zirela pasatuko eta izar
laztanak negarrez dabiltzan
igaroko direlakotz barbariaren armadetako
soldadoak oraino
lotsarik gabe
Dolores
eztitasunerako hildoak irekitzen ditugula
bakardadearen
usain garratza baizik ez dinagu aurkitzen
inguruan
lotsarik gabe
Dolores
kartzela hotzetan dauden gure lagunak eta
ez diguten azalduko
noiz itzuliko garen seaska kantuak eskain

ditzakegun altzora
lotsarik gabe
Dolores
gelditzen zaizkigun berlingo hormako hiru
harri zorrotz piztien
begietara aurdikitzeko ugarteak miretsiko
ditugun artean
lotsarik gabe
Dolores
ortzaizerantz so
hirekin
lotsarik gabe
dolorez

Bidali dizkinadan gutunak oro ordenatu
ahala berrirakurri ditinat,
eta gustokoa dinat lanbroz agertzen
zaidan hitzarte arrosa
kolore ugaritan banatu
ortzadar baten gisara,
urruntasunak ondoriorik ez balu bezala
urruntasunak ondoriorik ez balu bezala
liburutegietan hiretako opari bila
nabilen arratsaldeetan
mentalki mintzo natzain.
entzuten ote naun?
begira ezan arren ilargiari
halatan ikusiko dun errauts aintzirean
urruntasunak ondoriorik ez balu bezala
lehertzen nauen ausentziaren
irripar zurpaila.

Biharra lasai dabil itsas zabalean
eztiki mintzatzen da uhain azalean
euriaren eresiaz
soilik eskas duguna arrats apalean,

izotzaren hondotik martxo bipilean
kukuak kantatzen du mahasti hilean
euriaren eresiaz
ametsez gaudelarik zentzuz ixilean,

hedoiak lodi daude, nostalgia hotza,
ezpainetan agertzen ikara zorrotza
euriaren eresiaz
entzunen ote dugun kolpeka bihotza.

Bitoriano gandiaga
arantzazuko zerua zain ezazu
elorri arteko elurretan
goribar baserriko alabaren
urratsen oihartzunak
eguneroko hats iturri
bilaka daitezen
itzuliko diren ainaren
hegaletan.
kanpiazelai bidean
lotsak
beldurrak
ikarak
ezabaturik
biharra eder zezakeen
izarlokaren
ihesean
urtu ginen.

Bitoriano gandiaga
arantzazuko etxearen zaindari zaren
bitoriano gandiaga
gogoaz har ezazu
amikuze osoak
hizkuntzaren geroa
nolabaiteko orainen ondarra
artadietan zehar
bilatzen duela,
gogoan har ezazu halaber
hiru gizon eta lau emazte
bakarka
doazela
baiona edo puyooko
geltokietaraino
amikuze osotik
haurrak
trenera laguntzearren.

Bizitzaren gaxura edaten genuen urteberriko gauean
hortzak tinkatzen genituen tabernetan sartzean eta gero arpegi hormatuetan desgostua bezalako zerbait antzematen genukeen, negua edo iluna zelako; segidan
gorrotozko keinu hutsak agertzen ziren ezpain ubel eihartuetan, edo beldurrak zituen behakoak mikatzen

gogoratzen ginen nola apirileko arrats euritsuetan bibolinak piano nostalgikoa ederki lauzkatzen zuen maitemintzen gindoazela: ortzantzak usteltzen ziren zeru griseko hedoi hurbiletan, ikaratzen, gure hatsa erretzen genuen, Mozart aipatzerakoan hiri beltzeko ate burdineztatu gehienak hertsi zizkiguten blanp!

ibai nagitsua itsasora ixurtzen zen kasik egunero zubipeko harriak gozatuz eta belar malgoak bustiz eremu desolatuetako ametsak betirako uretan urtuz Pinpirina bilakatu zinen astean, ilargia irriz ari

zen uhainaren amodioaz asekaitz, ekaitz orlegietan
barna hain barna, erregin zuriak astiro zirikatzen

eskuartean mina kabitu zitzaigun: odoletan ibiltzen
ginen mendiak zeharkatuz, karrikako itzalean
gordez
hizkuntza arrotzeko solas legunak ahalgez ahoratuz
urrikiz kurutzatzen gintuztenen begietan ez genuen
barkamendu izpirik irakurtzen, galdurik ginabiltzan
urradura gorriz hazten baitziren zauriaren arrosak

oihan hezeetan aurkitu genuen mendeetako
gerizapea
iratzeak laztantzen genituen salda epelak irentsiz
telesailek ez baitzuten oraino haizerik iragartzen
bustinez aserik mintzaira elkorren larderiei ezetz
erraten genuen apalikan, baina ixiltasunak mututzen
zizkigun zintzurrak belarriak zilatzen karrakatzen

indartsuak zineten aitatik semera etxalde eroritan
barbariaren kromosomoak bekaizki bereizten aritzen
zinetenak, zuek, Aitorren hazi zorionez jaioak, linea
zuzenaren arbolako branka disdiratsuenak,
moralaren

zaintzaleak, bihotz haren neutralizatzale hoberenak
zuek, munduaren akabantzan erdilik nahi
gaituzuenak

urmael zizkolatsuen ezpondetan negar egiten
genuen
goiz urdinez betetzen ziren kasko muhin
brumatsuak
aspaldiko partez damuzko langar eztiak gutiziatzen
genituen, larruko laban minberetan hotza senditzeko
bularretan behera oroitzapenak hauts bihurtu diren
marmolezko haltzei eskatzeko, ainarak itzuli artean

maiatz mantsoko eguzki urrats horailak intzirikari
aditzen genituen, deiadarka, salbamen faltsuen
mugan
leize ezkinetako kemen ahulak lainotzen, sua pizten
biharraren ortzaizean, eta gure urtxo xuria pausatu
zen haritzaren abarrik meharrenean, hegalen
melodia
hasperenez, argi nabarrean, aire nekatuei
oparitzeko

erreka hegietarik abiatu ginen orduan oinez ikatza

aintziretako leihorretan garbitzeko lehiaz, sabelak kedarraz antzutzeko asmoaz, desiraren ezpalak
munho
elorritsutan biltzeko, orbainen latza ordu beroetan gantza arinez sendatzeko, edo ondartza bakartietako sable hagundunean etzaten ginen gorputzak
aurdikiz

herriko plazetan jendeak ikusten genituen banderak agurtzen bizkar hezurrak konkorturik, gosea zer zen etzekitelarik, laguntza apurra ardietsiko zutelakoz hilotz uste gintuztenak, lau taula murriztuetan hor ehortziak, esperantz jeloskorrenen malda karatsetan sekulako amnesian desagertuak, mendekuaren
baimenez

geroztik kaiertzetan azken trenen zain egoten gara iragaiten diren lertsunei begira, haurrak sahetsean eta bele sarraskituaren ipuina kontatzen dugu bost minututan, eta seaska kanta xuxurlatzen, zure itxura aldatze biderkatuen kronikak altzeirutan jarraituz oinazezko malkoaren hildo kiretsen hitzak laudatuz

Denbora asko behar da ulertzeko
hedoi urdinetik datorkigun euri
ttantta amodioa dela,
denbora asko ere garai batean
sahetsean genituen kideak
maite ditugula oraino sinesteko
denbora asko naski
jakiteko aldaketa sakonen ordez
higamena baino ez dugula
hatsartzea,
erretzen gabiltzala,
egunero denbora asko gau hartan
betirako pausatzeko,
denbora asko:
mineralizatzeko denbora...

Doan bidexka zeharra
eurite xoil apainean
badinat hire beharra
ikaraz hustu zainean

izkriba zkin poesiak
neguko egun hotzetan
suntsi aldeko hesiak
suak erre bihotzetan

bedi denboren zauria
hitzen iturri bilaka
lur krudelen ihauria
dezagun susta milaka

ederrago brumen laino
arrats apal lasaietan
negarrez urtzea baino
urtxo sasoi pasaietan

mina eskutan kabitzen
kopla arinez hanturik
ez dinat beti aditzen
maitasunezko kanturik

nor du hitsak ilusiko
tristuren mundu eroan
laster gaitun ikusiko
supazter baten beroan

Eguzkiari begira pasatzen genituen orduak
goizak eta egunak azken deiaren
zain
iraun beharrak
haragi ubelduak higatzen zizkigun
bitartean
hiriko karrika hutsetan ginabiltzan
kezkati
bata bestearen ondotik
arbol biluziak
haritz hostodun itxuratuz
beldur ginen
beldur ginen
zelaiak gorri samurrez baketzen zituen
argi otoiztuaren beroak ez zigula
sekula larru errea eztituko
beldur ginen
hainbat beldur
geroaren hats epela ez zelako
gure bihotzetan kabituko
beldur ginen

hainbat gaizto
ikaran bizitzen denak
ez duelako iratzeetan etzateko
ausardiarik.

Ehortz mezetako kantak negarrez bete dira
eta lainoek eramaten dituzte
hil kutxa biluziak
jendetza plegatuak atzetik euripean
otoitzez dabiltzan
larunbat goizetan.
zeruaren apaltasun dorpeak
beste kiderik ebats ez dezan
otoitzez dabiltza.

Elurra egin zuen goiz haren bezperan
hire ezpainak bilatu nitinan
gauean eta hotz garratzagatik
aurkitu gabean lokartu
heriotza
elurra egin zuen goiz haren bezperan
ez nindunan konturatzen
heriotza
geroa bihar berean apurtuko zela
nostalgiaren ispiluetan
elurra egin zuen goiz haren bezperan
txori gosetiak bezala leiho hegietan

Eskua hartu didan erantzun zilarrez
eta segitu haunat bihotz altzoraino
eztiki mintzatzeko ortzeko izarrez.

eraman nezan berriz gauen atzoraino
hitzen makala urtzen doaken ibarrez
edan dezagun itsas uren gatz oraino.

Eta nehor ez daukazu
kaiertze populutsu honetan zain
asmatzen zenukeen
norbaiten irrian
berotuko zela zure ezpainen
hormaldi minberatsua
eta nehor ez daukazu
bidaia nekagarria agertu zaizula
aitortzeko
luzeak direla burdinbideak
baina eguzki gorria
Landesetako pinuen gainean
punpeka ikusi duzula
ortzaizean
aitortzeko
eta nehor ez daukazu
no woman no cry abestiaren
errepika entzun arazteko
tunelean pasatzean
negar zorian zaude
eta diozu

hori da preseski
eta nehor ez daukazun unean
hiru minuturen buruan
geltokiko buffetean zaude
bierra bat eskutan
alabaren argazkiaren parrean
handitu ditekeela oraino
pentsatzen
sha na na na na sha na na
xuxurlatzen
eta diozu
hori da preseski
bakardadea
eta nehor ez daukazun orduan
ez dakizu nork duen kantaren
amultsua
diskotan grabatu.

Ez dago estatistika baliodunik agertzeko pobrezia arrunta hor
dabilela gure atarietan zoko usaineko isolamenduan kolpeka
munduko hizkuntza biluzienetan mintzo dela desaragiturik eta ardo
txarrez blai.
estatistikek gainera ez dute erakusten ahal nola lotzen den
pobrezia larruaren horbainetan alabaina ez dira joanen SOFRESeko
aburu ikerle probatuak metroko biztanleei zenbat irabazten duten
RMI ala ASSEDIC? galdegitera soldaten moiena nazionalaren apal
arazteko arriskuarekin
satorrak zuloetarik atera dira.
goiz honetan italiako etorbideko merkatu irekian ikusi dut
amona mozkortu bat lurrean kuxkurtua etxegabea menturaz hotzak

hartua eskea egiten hiru urte duela Gif Sur Yvetten (ez dakit non
den) sortu bere arrahaur «Garbigne-Oyhana» ren asetzeko doia.
Front Nationaleko eta Alderdi Socialisteko militanteak
parrean golko pertsikoko gerlaz gatazka ozenetan.
nazka
ogia erostera abiatzeko indarrik apenas

Frantsesa
ilustratzeagatik
joachim,
plaza bat eraiki diate
eta larrazkeneko
igandeetan
iturriko urak
itsaso,
erdian
jartzen gaituk:
—mutil hartaz pentsatzen
ari haiz oraino
ezta?
hire erromako herrimina
denetan bilatuarren
joachim,
bakardadearen hatzak
baizik ez
ditiaguk
aurkitzen:

—aurtengo beaujolais
berria gozoa dun
ezta?
amodioa xuxurlatzeko
ordu herbailetan
periferiko hegian
PCaren zain
pausatzen gaituk
joachim,
ilargiari begira:
—oin bederak izariko
zapeta jantz dezakeen
ezta?
nolabait
oinutsik ibiltzea
laketago zaiguk
joachim,
seaska kantak
zizelkatzen ditiaguk
zeru ankerrak
eztituko dituzten
ainarendako
joachim,
desolazio egunak

pasatzen zaizkiguk
nehorekin
mintzatu gabe
joachim,
solas uholdeak
askatuko bide ditik
telefonoak:
—haiduru egote hori
zail zaidan
ezta?
ahuntz edo arrano
bihurtzeko
ametsez
ibaien murmurioz
gosez gaudek
joachim,
eta ilunak
harrapatzen gaituelarik
kalipsoren ezpainak
samurrak dituk:
entre les loups cruels
j'erre parmi la plaine
je sens venir l'hiver
de qui la froide haleine

d’une tremblante horreur
fait hérisser ma peau,
joachim.

Gailurrak pasagaitzak direnetan
malko hutsak urtxo bihurtzen dira
urtats gauak
haritz abar biluzietan
iragaitearren.
gailurrak pasagaitzak direnetan
neska ttikien irriak alegeratzen
ditu urtxo urratuaren
urratsak.
gailurrak pasagaitzak direnetan
eguzkiaren deiadarrari ihardetsiz
milaka airatzen dira
iparruntz
iparruntz
iparruntz
gailurrak pasagaitzak direnetan
kantatuz
malko hutsak urtxo bihurtzen dira.

Gaueko bidaiariak arpegiak gorderik dabiltza
klandestinitatearen trenetan
euriak burdinbideak bustitzen dituen artean
ezezaguna itsuski zurrungan aritzen delarik
gaueko bidaiariek buruzokoan kokatzen
dituzte zorionari ebatsi oren gozoak
haize hegoak ainarak eta mendi urdinak
bizpahiru astez eztiaz asetzearren

gero bihotza oraindik gosez dagola ahanzteko
gaueko bidaiariak arpegiak gorderik dabiltza

Gauez amets eroz betetzen zaigu burua tenore faltsuetan abiatzen diren tren malgoekin eta ez ditugu segitzen ahal kaiertzetan amiltzen gara halaber edo etxerako bideak asmatzen dira euritan

oroitzeko astia badugu hor karrikaren bestaldean telefono kabina urdin lauz bat bazegoen deitzeko deitzeko zerura eta txino taldeak gonbidatzen gaituen bitartean lokatzezko txaboletan galdu dugu arratseko ondar hatsezko urratsa

Hamar minutu dauzkenat amodiozko poemaren idazteko
herdoilaren manuaz euriaren aztaparrak hertsi baino
lehen
hamar minutu soil hamar minutu biluzi hamar minutuz
izkribatzen ahal dea ezti desiraren hatsa hegaldaka
doan urtxo itsuaren lumetan edo gutun baten azalean
ikusi
munduaren azkena hurbiltzen aritzen dena larresoroak
zaurituz goldearen mugimendu zalantzakorrez markatu
urratsaren joanean eta amodiozko poemaren idaztekoa
hitza
bera mailukatuz telefono publikoetako leiho zikinen
lerroan xinaurriak dantzan otsoak goseti urgentziaz

deika

ez da deusik gertatu bizitza aintzina atzo bezalako eguna

maite haunat uharren antzoki krudela

Haugi
txiki
itsas hegiraino
eramango haut:
erakutsiko denat
uhinen gaziak
nola dituen
begien hondoak
erretzen,

txiki
haugi
erakutsiko denat
ortzaiz epelean
bizitza osoa
nola den
borroka mutuan
luzatzen,

Heldu beharko genuke sahetsean dugun eskua
tinkatzera urean bezala behatzetan
urtzera behin betiko ahurrean galtzera
izenik gabeko hitzak paperean lerrokatzeko
zeruaren apala
euriaren eroria irudikatzeko
nekadura erraldoiaren muga hedoitsuetan.

heldu beharko genuke enkre beltz berdinean
luma larrutuak bustitzera izenik gabeko
hitzek urean bezala ardiets dezaten areekin
higatuen leguna
itsasoaren balaka samurra
isiltasunaren garratza
jabegotik behin betiko urruntzearren.

izenik gabeko hitzekin hik eta nik lau min
zazpi eresi
hameka solas ezti dagoeneko hilotz bihotza
oraindik basamortuetan ibiltzen
harresi amoltsuetarik ortzaiza kolorezta

lezakeen argirik agertuko denez
galdezka
izenik gabeko hitzekin
enkre berdinaz idaztera heldu beharko
genikeen,

«mundu guzia arrotza da
nere herrian...»

Hotzegia da hiriburuko kaiertzea
walkmanean ruper ordorikaren K7a
igande arratsetako transiteroak...
andetan palombe bleuaren haiduru
...gauez(ter)
C.R.S.ak gaiztagin elkarteak bila
Sarri-ren poema bat uap te u u u
Elenari idatzi
nekea izan da
polizi gehiegi hemen gaindi. STOP
transiteroak.
...negar egin omen zuten.
hiriburuko kaiertzea hotzegia da

Imagina ditzakeen sirenak karrasika euriaren
ateri bulta laburretan eta haserrez pintatu
hormak manifestaldien ondoko gau ilunean nahiz
imagina dezakeen horma berdinek gorderen
dituztela herdoilak irentsi lantegi abandonatu
zenbait
eskugabezia imaginatzen duna?
nolabait tabernako tepo keztatuan hedatzen dun
grisaren zorigaitza sirenak karrasika medikua
non dago imagina ditzakeen beldur barneratuak
gorrotoak zein latzak gureek irabazi dute egun
ere pentsa ezan
hasgabezia imaginatzen duna?
plaza arroseko jargi publikoetan plegaturik oh
daudenek kontatuko dinate nola erre zen Z.ren
fabrika urte asko duela
gerogabezia imaginatzen duna?

eta hor nagon euriaren ateri bulta laburretako
balizkako lehorretan grisaren usaina larrutik

ken desiraz
hitaz ametsetan
arrotzen ugarte uhargia haizelakoan.

Iruñean
ibiltzen naizenean hirekin iduria
badinat
nafarroako hiribura (gurea)
%95 ez euskaraduna dela,
iruñean
sinesten dinat
hirekin nabilen gaueko orduetan
komeni dela
nafarroako hiriburua (gurea)
%95 ez euskalduntzea,
iruñean
hirekin
(gurea)

Kanpoko hotzean harrapatuko zaitut
negar zorian heriotz gogoz beterik
bizitzak eskerrik ez duela erraten
eguzki epelak zeruaren zain erreak
jabalduko dituenean mintzoa entzun
dezagun gero herresten apaltasunez
kantaturen dizut amodio minez.

etxe aintzineko xurxuri lerdenenen
maldan jarriko garenean laztanduko
zaitut musuz estaliko begi lainoen
sakoneraino biharkoaren hurbileraz
jabetuko gara eta egunaren urratsa
segituko dugu mendeak lehertu arte
kantaturen dizut amodio minez.

gaueko iluna bahitze orduan ahizpa
leizearen hitsak tinkatuko dituela
tristuraren hortzak ihes abiaturen
gara solas herbailduen ziztak gure

bihotz nekatuak uharretan irekirik
hatsa askatuko zaigu haskatuko eta
kantaturen dizut amodio minez.

Kasko zokoa zerusabaia zen lo aldian
milaka pasatzen ziren urtxo xuriak
iparreko zelaietaraino.
ez nituen segitu nahi.
aitzakiak bilatzen euriaren
promesak amodio bihurtu baino lehen
desagertu
heriotzaren eta bizitzaren mugetan
kasko zokoa sabaiagotu zen lo aldian

Larrazkeneko haize hegoen hats epelen
bila ibiltzen naun
hire begien orlegitasunean.
oihan ilunenean galdurik
banengo bezala
deitzen haut sohako bakoitzean.

atzoko urradura hura pizten zaidanean
minez josirik nagoenean
hire begien orlegitasunean
bermatzen ditinat
humilazio guzien aurkako
iraun beharraren erro ankerrak.

bakardadea nekez jasaiten delako nekez
hi ere gaizki habil noiztenka.
karrikak mututzen dituen
beldur latzaren garaiean
galaxia osoaren tristura
irakur dezakenat
hire begien orlegitasunean.

gure amodio eskasaren zauri zabalak eta
munduko madarikatuen miseriak
biltzen ditun
behako ezti batean.
horregatik dinat hain maite
hire begien orlegitasunean
bakezko hitzen urtzea.

MEMENTO HOMO QUIA PULVIS ES ET IN PULVEREM REVERTIS NON OMNIS MORIAR CREDO

AIGUEZE 1990.

I

Iraila jadanik goizeko zortziak aldera
eguzki zurailak lantokia epeltzen du
pentsatzen nagoela
zelai kantarietan barna
ibiliko garela bihar
iraila jadanik goizeko zortziak aldera
heriotz susmoaren hotza asmatzen
saiatzen naizenean
bakearen hezean igeri noa
segidan
gosea dut desiratzen
odolez blai.

II

ahosabaietan azkenik hormatze krudelen
kalzioa lotzen da
hauste biharamon oroimenak
auzo ohia ehortzi genuen euripean
ahosabaietan azkenik hormatze krudelen
kalzioa lokazten.

III

galdu gaituzte aterberik gabeko oihanetan
argi izpirik ez genekusanean
zeru ilunetarik zetorren
sua haritzak kiskailtzera.
galdu gaituzte bihotzaren zoko hitsenetan
odolaren abiaduraz leherturik
karrika ezkinetan kukubilkatzen
ginen taupadak zenbatzeko.
galdu gaituzte eguneroko presaren dorpeaz.

IV

uste genuen adiskidantzak balioko zuela
atzo-bihar-etzi-damu orotako
baina higatu zen aintzira motelen
leihorretan tematzen
eta arratsari begiratzen genion
esperantzaren zain.

V

kureleak pasatuko dira zeruan
neguaren seinale
eta subazterretan
kokatuko gara gaztainak janez.
kurelak pasatuko dira zeruan
urdinaren leizean
eta ahizparen irria ahantziko
dugu txorien hegadak behatzaz
erakusteko.

VI

ikusiren duzu eguna argitzen
artadi lainoa oro uhargitzen
maite zaitut

ikusiren duzu gauaren hondoan
artizarra legun ilargi ondoan
maite zaitut

ikusiren duzu ainaren hegalez
negua hurbiltzen euri gesalez
maite zaitut

ikusiren duzu eskua zabaltzen
amodio minez haragian galtzen
maite zaitut

ikusiren duzu indarrik badago
ortzaiz urratua gero zabalago
maite zaitut

maite zaitut.

VII

zainek abandonatzen zaituztenean ondikoz
ez duzu gehiago beleen dantza lasaia
itxuratzen ahal
gaizki
barur egunak zerrendan
diokezu baldin eta aurten haize hegoaren
eztia faltatzen bazait
hilgo naiz segur
gaizki
barur egunak zerrendan
soilik bakardadearen urratsak errautsean

VIII

maita edo maitatuak garela sinets dezakegu
hatz berdintsuak erregebideetan
asekaitz
maita edo maitatuak garela sinets dezakegu
—deituko zaitut...
—idatz iezadazu otoi!

jasankaitz
maita edo maitatuak garela sinets dezakegu
baina barbariaren aurka borrokatzeko
goiz nabarrean
bakar bakarrik gaude
harriaren pare.

IX

otelore horien garaiaz gogoratzen naiz.
txirritak iratzeetan kantari.
aiheneko intzaurtzeen maldan iragaiten
genituen igandeak
herenegunak aipatzen.

X

izar ihintzak zein desiragarri
eskaintzen digun baratzeko
belarra

izar ihintzaren laztan bustiaz

ahurreratzen zaigu emeki
amodioaren lilia

izar ihintzak zimurturen ditia
mihiseak larruak sabelak
eta ezpainak

noiz ote du izarraren ihintzak
erreko maiteminaren
ankerra?

XI

lisboatik karta bat ardietsi dut atzo
goizean eta saudade
guadelupeko eguzki sartzeen argazkia
bezperan baina
herriko ehortz mezak oro hutsegiten
ditut honaratuz geroztik
—oi amodioaren urrakoa!

XII

hurbiltzen ari dun askatasun nasaien orena
edo herio errautsen haizea
nola jakin?
Asia kutsua din auzo honek eta hire gutunaz
amets egin ninan barda
nola jakin?
bazkalduko gaitun elkarrekin
ibaiak kurutzatzen diren hirian
mortuetan zizelkatu ukamenak
ahoratuz
kristalaren zorrotza duten solasen erdian.

XIII

ainarak berriro bildu dira hegoruntz partitzeko
berriro bildu dira alabak eta amak
iparruntz abiatzeko orduan.
o ainara nerea...
sarri bilduko da berriro iparrarekin hegoa
oinazearen minean bihar kartsuagoen eraikitzeko.

XIV

oraina baizik ez izatera heldu beharko genuke
atzokoak nostalgia hazten duelako eta
etorria dudan dagolako munduaren inguruan.
oraina baizik orainaren biluzia estimatzeko
edo trenek hautatu duten geltokia
onhartzen ikasteko
maitatzeko dakigularik alta orainean ez
zaigula amodiorik bermatuko.

XV

bihotza higatzen digu tristuraren zamak
urteak antzo gastatzen ditugu
etor litekeen berotasun
ikaratiaren zain.
nekez iratzartzen garen goiz bakoitzean
badakigu gero urrunago doala
ortzaiz garaituetako
mendi sardeskatuen lerroa.
ederra da bakardadea ederra da iraupena

tristuraren hedoiak lehertzen
ez diren artean
uharrik gabe ihardokitzen dugula
lur azalaren moduan
ur eskasez
arroilaz labantzen zaigu larrua
ur eskasez.

XVI

herrialde desolatuak zeharkatu genituen
izpirituaren erresumetan
desbideratu ginenean.
etxe hutsen loiroetan zaharrak mintzo
ziren iraganeko kolore loriosoez
esperantzak hautsi elasturiak
bisitari traketsen
begietan mailukatuz.
katu basak pikondoetan gerizatzen.
erreka ertzera jautsi ginen
negarren isuria astintzeko asmoz
eta atsedena aurkitu genuen legarretan
ezpataz grabaturik.
salbatuak ginena?

XVII

diot hitzaren oihartzuna desira dela
gaua kanalaren hegietan paseiatzen
pasatzen denean
hitzaren oihartzuna uraren azalean
oxigeno bihurtzen delakoan.
elearen oihartzuna desbestitzen dugu
bruma herresen xarmaz
gorputzak hunkitzen direnean
hitzaren oihartzuna lanbro malinaren
sakonean desiratzen baita.

XVIII

beranduegi dun maitea loak hartzeko
zeruen arrosak ilusioa hazten duen
ordu minbera honetan eta urtxoak
teilatu hegietan amore grisak mokoz
zitzikatzen ari ditun maitea
beranduegi dun loak hartzeko.

garaizegi dun laztan suaz erretzeko
utz dezagun geroa itsasoraino
hedatzen euriaren ahuspean edo
haize hegoaren hatsaz gure bihotzak
gozatzen malkoaren ordez dedin
elurraren gutizia orotan zabal.

XIX

ura lehortu zenean haragiaren arkaitzetan
errearen usainaz jantzi ziren aireak
zoriontsu ginen ondarrean
ezpainak hauts eskuak hauts
munduaren ankerra hauts
mineral bihikatu genituen haizeak
desertuetako isiltasunetan barreiatzeko
ura lehortu zenean haragiaren arkaitzetan
errauts nintzelarik sekulako
maitemindu nindunan.
blues.

Memoriaren minak
itsas beltzetako
ugarte isiletan urtzen
direlarikan
kartzeletako kate hotsak
archipel uhargien
leihorretaraino
entzuten dira.
bizitza bahituen dorrea
tindatu omen dute
pastel koloretan
fleury merogisen.
AMA!

Mendi lerroak ortzaizean
arratseko brumetan
urruntzen.

mendi lerroak ortzaizean
orlegi samurrez
apaintzen.

mendi lerroak ortzaizean
arrosaren eztiz
baketzen.

amodiorik gabeko eremuan
mendi lerroak ortzaizean
bakardadean
urtzen.

Munduko madarikatuen
zerrenda koloretsuetan
sartzen gintuzten
hizkuntza beltzegia
genuelakoan.
presoak
isolamendu zeldetan
presoak.

izarren ihesaldietan
gosea hedatuaz lurra
lapurtzen ziguten
auhena samurregia
genuelakoan.
presoak
isolamendu zeldetan
presoak.
amnistiarik ez
guretako.
reagge.

Munduko malerusena senditzen
zarenean
autobusean
erraten dizut sabelak urratzen dituzten
desirak direla
ankerrak,
erraten dizut bakoitzarentzat dagoela
mendi humilen gailurretan
askatasun premia zain
erraten dizut gero
—zure eskua nerean—
egunen batean etorriko dela goizak
eztituko dituen
argi zirrinta,
elur usaineko euri zaparrada
egunen batean urrats arinez hurbilduko
ditekeela
amodioaren kalda.
munduko malerusena senditzen
zarenean
autobusean.

Neguaren hegaletan
zaude beti esperoan
ametsune zabaletan
haizearen lo beroan

loreak irriaz bildu
nahian zeru hondora
ainara ere hurbildu
seaska honen ondora

ilargi urreen teman
aire arrosa zainean
loak zaitzala ereman
hedoi eztien gainean

ninano bubak darama
bruma ederren atean
itzuliren baita ama
egun euritsu batean

Noan airatzen
azken noizean
eta pairatzen
dudan goizean

izarra mintzo
entzun ditake
malkoa zintzo
larruzko bake

noan zutitzen
ibai hotzetik
pena gutitzen
da bihotzetik

ilun kiratsez
egin hotsetan
zutaz ametsez
nago lotsetan

Noiztenka bizitzeak energia oro irensten
du den mendreneko ekintz ttikienetan
eta pentsuak ez ditzazke belar usainak
imagina ere zeru grisekin solasean
saiatzen delarik.
heriotz gutiziak bizitza mugatzen duenean
elektrizitatea badabil zainetan
ilargi aldaketa egunetan,
edo odola kolpetan kolpeka.
nola segurta dezakegu harrabots hori dena
bizitzea denik?
ondarrean indarrik dudatzen amiltzen dira

Nola idatziko dugu geroaren argia
galaxiek hedatzen dituen hormetan
itzalak irakurtzen ez dakigularik
gaua beti uste gabean etortzen da
minaren bihiak baheetan pasatzeko
astirik ez digu uzten arratsaldean

zein emeki doan denbora etxeraino
bidaiatzeko ditugun goiz epeletan
kolorez inguraturik asmatzen dugu
artadiak huntzen direla eguzkitan
eta ainaren kantuak gero urdinago
bihurtzen dituela mendiko haizeak

borroka gogoa ahultzen zaigu maiz
ondartza eztietan etzateko gutizi
larria pizten lepo ondoko zainean
balitz ilunik gure dolamen hutsen
aterbetzeko balitz egunik metalen
zaratak hausteko uros gintezkeela

Odol-belharren sahets lehorretan
munduaren zauriak ahantziko dira
barkamenik gabe
negar-eztiaren urratsak
zaplastatuko gaitu:
lokatzetan doa bizitza garratza.

ausentziaren eta axola eskasaren
aztaparretan preso gaude betikoz
barkamenik gabe
deiadar ikaratiak
gezur hutsak balira...
lokatzetan doa bizitza garratza.

O ibai ertzeko xurxuri kuttun
zuek agian sinetsiko
gure herriko haurren oinazeen
markak
arpegietan
malkoz erre matel zaurituak
ezpain biluziak
zuek agian ulertuko
herriko haurren
oihu latzak
eskubide ukatuak
zuek agian onhartuko
hiltzen doala
esperantza

chove, é o deserto, o lume apagado
que fazer destos maos, cumplices
do sol
E. DE ANDRADE

Oraindik nabil Du Bellay plazan igandez
nik ez dakit noren edo zeren bila, baina
nabil, barkamen gaberik kuskatzen nauten
jende presatuen tartean; iturriko uretan
nostalgiaren hotzetik horditu nahi nuke
kaskoa gaueko amets gaiztoaz garbitzeko
egunaren hats epela lehortu baino lehen

so far away from me abestiaren ankerraz
betetzen ditut izotz hitsen gordalekuak
munduaren azkenak ez dezan inoiz sinets
zoriona hain erreza zenik, hain arraroak
amodio bahituen hatzak karrika irekitan
aurkitzea, malkoaren sahetsean nekaturik
heriotzaren hurbileraz isilik intzirika

ba dator gero ausentzia hegalak zabalik
haragi ustelduaren harrotzera, ekainaren
erruz, loak hartu haurrak esnatzen diren
orduan, denak urtzen gara uharren luzean
metalaren zarata zorrotzak memori hilak
desintegratzeko zorian dauzka, biharkoaz
altzeiruaren desirak zaplastatzeko, alta

xurxuri bihotzak zerbitzatzen dizkigute
restaurante ilunetan, arimak kontrolatuz
sikologoz inguraturik, debeka dezakegute
etxe ondoko ibaiaz pentsatzea; dena dela
aberastasun ekonomiko sortzale ibiltzen
gaituzte eta hamar puntu galtzen ditugu
zerua laudatzen duten ainarak itxuratuz

humiliazio zerrenda baizik ez zaigunean
gelditzen begirada gogorrenen ahanzteko
negar gutizia dugu trenak burdinbidetan
abiatzen ikusten ditugularik, azantzaren
amatasun egarrian, esperantzaren bahetan
iragaiten den odol bustiz mamua asetzen
ahal dugunez bazterreko lorei eskatzean

ba ote dakite zergatik ez den arrosarik
lilitzen amnesiaren lur beltzetan gorri
zergatik ez duen eguzkiak erresinolaren
lumetan atsedenik pausatzen asteazkenez
zergatik ezpainetaratzen dugun haserrea
ez den poesia ederra bihurtzen ondikotz
zergatik gabiltzan hutsaren erresumetan

ahalgearen zubipean izarrak kulunkatzen
direnean, nere eskuak eskuz mukurru asma
ditzaket ordea sohakoak ihesi dabiltza
arratsetan arranoen goseak ase beharrean
eta ez zaitzaket atzeman oroitzapenaren
mugetan dilindan zabiltzalarik, pinpirin
koloretsuen moduan, txori urruna jadanik

eta Du Bellay plazan ausartzen banintza
hauts arina bilakatzeko gogoa handituko
litzaidake, goizetako argitasun ahuletan
haizeak nezan eraman otoitza otoitz den
eremuaren biluziraino, urrikal zakizkigu
belarrak usantsu zoratzen diren zelaiak
kukuaren kantuaz lorios entzun ditzadan

Ordu honetarik aintzina automata moduan
ibiltzen haiz ezkaratz ilunetik
sukalde berora,
bizitzaren taupadak zenbatzen,
urrako hurbila
onhartu nahi ez bahu bezala.
urteko ardo kiratsez betetzen ditun
biharko bakardadearen basoak,
hurrupatuz husten
irratian dabiltzan kantak errepikatuz:
lepoan hartu
ta segi aurrera.
gaurkoa ere neke zain jasaiteko.
eta izarrak dirdir zeruan.

SANTXO AZKARRA LO DAGO

Santxo azkarra etzana dago
ibañetako elizan
santxo laguna beti hitsago
elurtearen gerizan

santxo azkarra gure errege
zer huen bada ekarri
gudu latzetik kanpoko lege
zaukutelarik ezarri

santxo kuttuna gero berezi
gintuzten eta apaldu
arbol idorrak mendiak hezi
arranoak merke saldu

ubeltzen doaz minak oraino
nafarroako gainetan
zelai erreak errekak baino
dabiltzalarik zainetan

santxo laguna iratzar hadi
begiratzeko geroan
azkarragoak jein dituk adi
fusilak esku eroan

santxo azkena dator hegoan
artoak gorri direla
urarekilan hats balego han
gatzaren lore fidela

santxo azkarra eresien gau
hormatuaren luzean
hirekin doak aire ezti hau
mugetako kurutzean

Sartaldetik datozen hedoien artetik
ainaren hegaldi arinak dakuskit
arrats apal lasaietan.
oihuka has nitake baina ondikozko
hasperen gordeak oro higatzen
zaizkit gauaren mortuan.
esperatzerik badea?

laparreko elorria eskutan hartzen dut
geroaren mikatz dardaratiaz
herabeki betetzeko.
ainaren hegaldi arinak dakuskit.
negar gogoarekin irriz nahiz nago
ortzeak hondorik ez duelako.
esperatzerik badea?

ipular dudakorretan denbora pasatzeko
haragi puskak bortizki plegatuz
atzoko arpegi larderiatsuak
astiro arrakonposatzen ditut

ordea satorren egunerokotasunean
nehor ez duket ezagutzen.
esperatzerik badea?

haize hormatuak ur gosez dauden artadi
zabalak aspertzeraino laztantzen ditu
bihiak irinaz hustuz betirako.
lurrean etzanik amesten dut behineko
amodioaz sangreatzen nautela
eta hire gorputzaz asekaitz ibiltzen naun.
esperatzerik badea?

esperatzerik badea?
esperatzerik badea...

SONGS FOR SUSANA

I

Irunberriko arroilak bakardadez hantu ziren
arratsalde apalean arrano beltza
mututasunaz esperantzetan geratu zunan.
ihausteria gero lauetan lehertu zenean
i doluaren oihartzuna!
zazpigarren orroak luma odoleztatua
hutsaren ahurrean
kokatu zinan.

II

ari dun elurra hiriko bazterrak zurituz
eta karrikak urtzen zaizkigun
ibai ertzeko arratoiarekin solasean:
aizu
zergatik ote du orlegiaren usaina
erran nahiko nukeen
egia ankerrak?

berriro ari dun elurra udaminean.
hotzez daldaraka nohan
auhaltzera gonbidatu nauen
emazte eztiaren
etxeraino.
urbiako bideetan denbora kolpeka...

III

agenda higatua hilerri lauz bilakatzen
zaidan urte motel honetan
arantzazuko arkaitzetako zuhaitzak
ikaran nabaritzen ditinat
eta harrizko apostoluak malkotan
libertatea deitzen zuen bihotz bera
bi tiroz puskatu zutelako.

IV

lur irauliaren azalean
negua hedatuko delarik
lertsunen hotsez

pausatuko dun
eresia.
amodioz
edertuko gaitun
bularrak
desiraren hatzei
eskainiz.

V

artadietan zehar
zentzugabekeriaren mila bala
barreiatu zitiztenan
gosearen sabel urratuak
auhen batean kiskailiz
arrosen ausartzia
mendekuz
ezabatuz.

VI

atzo balitz bezala ibil gaitezkeen dagoeneko
garardoak irensten

—zigarreta bat biltzen didan?—
elkarrekin bazkoaren doloreaz beterik
oñatiko plazako arkupeetan
ruper ordorikaren kantak murmuratuz.
dagoeneko damero grisetan
txantxikuarrak dantzara bortxatzen dituzten
gauerdian bob marley kurutzatzen dinagu
nostalgia langar bihurtzen delarikan.

VII

poesia zer den galdegingo didatenean
ezpainak doidoia mugituz
ihardetsiko dinat:
—karrasia iratiko basoan
besterik ez,
eta beleak zurzuri lerroen altzotik
harrobiratuko ditun
lokatzaz asekaitz.
poesia zer den galdegingo didatenean
belarretik minez urrunduko naun.

VIII

arbolak etsirik dauden munho malkarretan
gezurraren biluzi barkaezinak
galaxia garaituz geroztik.
konkistaren zaldun basatiek
zelaia purruskatu zutelako
euriaren haiduru jartzen gaitun
ainarak laudatuz.

IX

urratsaren ozenaz edo
oihuaren oihartzunaz gogoratuko dun
kakuetako lepoa.
pinpirin arinek konta dezaketen
belar hezearen ipuin
hunkigarria
harri bustien gainean
luzaturik gauden goiztirietan.

X

barbariak larrutu ipularretan sarri
lanbroaren hitzak ahoratuz
ekaitz haziak
ereinen ditinagu
eta mamuek horzkatu neskato ttikien
matel zaurituak sendatzeko
aintzira bila
abiatuko gaitun.
tunel hertsietan gordeka gabiltzanok
jakingo dinagu
azkenean
itzalak irakurriz
zeinen den gozoa
lainoaren epela.

XI

okabeko harrespiletan ducadosak erretzen
genituenean
erraten geninan
ez genuela heriotzaren beldur izpirik.
txori izanez
hegalak plegatu gabe

hiltzea
aski eder zitzaigunan.

XII

loak nekez eramaten gaituen ordu ubeletan
leihoak zabalik datxizkanagu
ortzeko disdirak biltzeko
irunberriko errekatik
bi pindar gehiago
kliskan daudelako
artizarraren sahetsean.

XIII

deus ez gara.
deus ez gara.
deusetik ordea sortzen da
laztanek
hildoz estaltzen duten
lurraldea.
deus ez gara.

deus ez gara.
alta amnesiaren papondoa
urrez josten dugu
udaberrietan.
deus ez gara.
deus ez gara.
eta ihardoki gutiziaz
alegeratzen ditugu
haranetako brumak
deus ez gara.
deus ez gara.

XIV

...lasterrak
habil eta soginzan gizonik
gizonik
denez ageri.
ama
indazüt atorra
ama
menturaz sekulakoa.
hik bahiena alabarik?

irunberri altian
dün hilik
menturaz sekulakoa.

XV

umekiaren gisara
haserrea handitu dun haragi dudakorretan
eta larrazkeneko eguerdi sargoritsuan
nola dezakegu amor eman?
buztinez aseko gaitun.
kristal mikatzez beteko ditinagu
esperantzarainoko
altzo desolatuak.
libertatearen harrobia
zizelkatuko dinagu gero
bihotzaren zokoan.

XVI

tabernaz taberna ihes dabilkigu destinatua
zeru urdinaren krudelkeriak

leherturik bezala.
bideetan galtzeko arriskuan.
nehorekin ezin mintza.
ametsaren uhargitasuna nahiko genukeen
esku minberaz
agurtu.

XVII

ausentziaren ordez presentzia loratuko da
gorputz mutilatuen kiratsaz kateaturik
zain egotearen beharraz itzuliko garenean
haritz ahulduen malda berora.
gauaz jabetuko gara.
edo bakantzen diren taupadak
altzeiruzko zaraten erdian
bahituko ditugu
ausentzia presentziarekin
ezkonduko denean.

XVIII

maite ditinat loaren alde borrokatu ondotik
altxatzen diren hedoi nagiak.
maite ditinat ere kafe makinak
marmarika ditzakeen
burbuila zilarrak.
maite ditinat amodio eskasak.

XIX

igande arrats batez trenean sartu aintzin
baionako geltokian nindagonean
tere irastortzaren
hitzen eta hotsen aldaketak leitzen
sarraskietarik urtxo grisak
airatzen zirela itxuratu ninan.

XX

balitz oldarraren aterbetzeko elizarik
hire sohakoaren oroitzaz

otoitzez belhaunikatuko
nindukeen
damuaren muhinetan kulunkan,
eta asma nezakeen
ehüjarren gora
goazela
paradisurantz.

XXI

ainarak
etor zaitezte lehen bai lehen
ezkaratz hutsetako sumurretan
kabiak eraikitzera.

ainarak
ortzearen gosea malko mugetan
txerta ezazue zorionen isilaz
lehen bai lehen.

ainarak
kantuz entzun dituen neskatxa

hegalez doa haizearen mundura
uros uros uros.

XXII

zauriak
itsasoko gatzak horbainduko ditin
uhainen indarraz atzoko belardi usantsuen joana
hagunen soilean bermatuz.
zauriak
edo laban zorrotzek ireki memoriaren karatsak.

XXIII

bihar eguzkia desagertuko dun
mendien
gibelean.
bihar ilargia teilatuetarik
miretsiko dinagu
eguzkiarekin
solasean
eta goibela
piztuko zaigun.

XXIV

nafarroako oihanek badakite badirela oraino
beltzez jantzi erreginak
irati ibaiaren hegian etzanik
begirada samurren zain daudenak,
badakite badirela oraino zartagailu ahotsez
beteak diren harpe hezeak
doluaren ahurrak gerizatzen
edo nolabait eztitzen dituenak,
badakite badirela oraino urtats bezperetan
herrera de la mancharaino
abiatzen diren autobusak
badakite badirela oraino gaztelu plazetan
hutsegiten diren hitzarmanak
askatasunaren indarrez deiadarkatzen
duten irriak alargunen ezpainetan,
badakite badirela urxo zuriak ausardiaren
xendretan eta ari ari mandoko
frango seaskaren aldamenetan
haurren amen gozoa jastatzen
jarrai dezaten.

Ttikitarik manatua izateko hezia zarena inork
ez dizu ogi puskarik debaldetan eskainiko
zure izerdi merkearen trukean.
thorez karrika sutan erretzen asma dezakezula
arratsak ebakitzen dizkizun palombe bleuean
daukazu pentsuaren haria eta ilargia dabil
negarrez beterik zeru izartsuan.
odolez itotzen dira gaueko bide malkarrak oro
lurraren trenpua errauts bihurtzen delarikan,

Txori xumeak
haltzetik haltzera
jautzika

urtxo grisek
amodioa zuzurlatzen
leiho hegietan

hotza larruan
hotza
bihotzean

zoriona noizko?

Urradura aintzineko karkara ederren
ondarkin hormatuak bildu nahian
nabil zure lurretan.
orlegitasunaren disdirak bihotzak
irensten zituen atzo
haizeak geroa epeldu artean.
eguzkiaren urrikia bilatzen genuen
barkamenik gabeko begi itsuetan
euriaren haiduru ginaudelarik.
amodioaren kate hautsiak zintzurra
hatsartzea trabatuz
odoleraino tinkatzen zidan
eta orain gauero
zure lurretan nabilenean
deitzen zaitut
sokorri nezazun.

izarretan lotu itsaso zabala edaten
genuenaren ahanzteko zalantzan
durduzatuz zihoan.
ardo berriaren erredura ahosabaian

esnearen nostalgia daukat
zure lurretan ibiltzean.
bularrak hantzen zitzaizkigun
ahurrean desgostuaren ura
ixurtzen zitzaigun bitartean.
ibai desbideratuetan etzaten ginen
arratsaren joana neurtzeko
eta erresinolak kantatzean
deitzen zintudan
sokorri nindezazun.

izotz arinak gure haurtzaroko hitzak
hala beharraren aldarean altxatuz
kurutzefikatu zituen barda.
igandez jantzirik jendetza galanta
mendietan barna hurbildu zen
desiraren ehortz mezetara.
negarrak gorde genituen.
larru samurretako gogoa
pizten zait noiztenka
zure lurretan nabilenean
eta gauero
deitzen zaitut
sokorri nezazun.

alta ainara senditzen naizenean
segur nago kabi beroa bederen
zain daukadala
zure lurretan.

URRAKOAREN HARAINDIAN

J'ai rêvé la nuit verte
aux neiges éblouies
Baiser montant aux yeux
des mers avec lenteurs,
ARTHUR RIMBAUD.

I

Ausentziaren azal beltza sardeskatzeko
indarrik balitz
gutunak izkribatzeko edo soilik
trenak urruntzen direnean agurrak
banatzeko leiho ubeletarik
bagenuke zorionaren gostua ahosabaiean
lotzeko gutizia
zorionaren haizeak non dauden susmatu
gabean ere.
hiriez bakarrik dagigu amets
bizidunak argazkitan itxuratuz
hiriez bakarrik dagigu amets

II

haurra bigarren aldikoz munduratzeko ordua
etorri da
eta zeruko izarrek nolako sakontasuna
duten gauean miresten gabiltza.
konturatzen gara atzoko egunetan bezala
zaila dela urostasun horren
partekatzea
axolarik ez daukaten kideekin.
etorri da...

III

laino ilunen artetik ageri zen ilargia
gorriska
aturri gainean miratzen
mundua zartaturen zela ematen zuen
arrats uhargian
gorriska
mila pusketako beldurraren

ispiluetan disdirari
gorriska
hilgo ote gara?
odolak ixuri bide dira
neguaren ezpal hormatuak gozatuz
hilgo ote gara?
errauts mineral bihurtu garen
betikoak daukagu hatsa
gorriska
laino ilunen artetik ageri den ilargia
bezala hauts ontziak baino ez garelako

IV

astuna geratzen da eritasun osteko sukarraren
moduan
hezurretan
begiradaren ortzaizean geldo
maltzur
hain dorpea
izan dea heriotz
gose
munduko lagun?

pentsatzeak jadanik
ainitz kostatzen duenean eritasun osteko hats
jasankaitz
bahitua
urturik doa
pena ttikien eremuetan
hain dorpea izan dea
heriotz
gose munduko lagun?

V

aztiak idatzi zidan
lasai itzuliko haiz urratsez
urrats egunez egun

eta nik
365 egunez egun?
gauez gau 364?
nunca volveras zioten beti abesti lehorrek
herriko irratietako frekuentzia modulatuez
aztiak idatzi zidan artean
lasai
eta nik,

VI

seigarrenari bakardadearen izena erantsi
genion eta bazkide nagitsuek
onhartu zuten
bakardadearen izana gaitzetsiz halere
erran zuten:
begira
geldi dedila bakardadea eresiak
plegatzen dituztenen
altxor estimatu
ihardetsi genien segidan:
bakardadearen dudak
jendearen minak ere badira
erdiminak agian?
altxor estimatuaren erdiminak ote?

VII

norekin mintzatuko gara orlegitasuna goizeko
hamarretan

aharrosika itseskatuko denean?
amnesiaren aurka borrokatu ondoan oroitzak
ahanztearen erregebideetan
galduko direnean?
iratzarraldi bakoitzean usteko dukegu
elasturiaren haria hautsezina dela
edo desertuetako areekin bihurtuak garela.

maite ditugunak/maite gaituztenak? baino ez esperatuz
musika airosek soleitzen dituzten plaza
borobiletan...

VIII

dena egia izan da bizitzaren orenean
zinezkoa guzia
senditua haragiaren ikara
herabearen haritik
dena egia izan da irria baratzeetan
euria ahurretan eta amodiozko solasa
geltokian
egia izan da gero bizitzaren orenean

negar gogoa arrastirian
haserrezko hitzen errondan
dena egia izan da bizitzaren orenean
oraingoan egia bera pairatzen baitoa

IX

hizkuntzak aldatuko zaizkigunean bihar
edo etzi iluminatuan
ez dugu jakingo nola diren ahozkatzen
aditzak eta indar gehiago beharko dugu
kristalak eztitzearren
hire alaba bizi bada
mauliala dün juanik
gauezko eskoletan sartuko gara
dislexiak zuzentzeko bezainbat
zorionaren deklinabide berriak
ikasteko
amak ützi nindizün
bedats azkenian
ikasteko
han züzün xedera

oi ene malürra
hizkuntzak aldatuko zaizkigunean bihar
edo etzi iluminatuan ortzeak gris nahi

X

harrapatu haunat donapaleuko argi zurpailen
itzalean osoki edana
ezkont eztiela beldürrez kantatzen
jautzika
urrezko lauburua papoan
atzoaren memoriaz hanturik
toka... noka... hika... ika... jautzika(***upa)
ilunaren sarraskiari
iraun dezakegunez eskatzen
pakean utzi arte utzi arte abesten
zintzurrak larrutzen
aspaldikoa
harrapatu haunat donapaleuko argi zurpailen
maldan agian agian jeikiko direla sinesten.

XI

eta gustatzen zaigu haranetarik altxatzen diren
laino arinek zein errez beztitzen
dituzten xurxuriak ikustea.

eta gustatzen zaigu ortzi grisetarik eurialdia
lantegi desertatuen herdoilaren joanean
nola den jostatzen entzutea.

eta gustatzen zaigu gaueko atari segretuetarik
mendi elurtsuei so egotea hurbil litekeen
amore laztanenaren haiduru.

eta gustatzen zaigu malko zaharraren aintziran
bihar bahituaren hormatzearren menpeko
ahur zaurituak bustitzea.

eta gustatzen zaigu goiz nabarretako argizpiek
sortalde amoltsutik gazteluko harresiak
gorritzen dituztelarik esnatzea.

eta gustatzen zaigu erreka hertsia hain garden
hiri mutuan zehar ixurtzen delarik

belarminen hobiraino segitzea.

eta gustatzen zaigu ortzaizean ubelaren lerroa
behatz dudakorraz betirakoan marraztea
haritzak zenbatu aldikal.

eta gustatzen zaigu hereneguneko kide bakartia
arto landa berrietako hildotxorien antzera
arinaren leihorrean kurutzatzea.

XII

..., ez dok hamairurik I.
edo bai. hamabigarrenaren pasartea duk
beraz:
ama 3
ainarak lokar arazteko erabiltzekoa
den zenbakia dela
dioat,
edo bai.
ama 3
igande hormatuak tren kontuak orain
sabel hutsen

zenbaki okerra
quai no1 voie 4
en direction de paris-austerlitz merde
latza
dioat,
edo bai.
AMA 3
neguko gutunak amodiozko koplez eta
jarrai
eskapatzerainoko lurrean
«hamabostean behin... etxerako bidea
buruz ikasia...»
dioat,
edo ez.
...,
AMA 2
euri uharrak kartzeletako teilatua
zaplastatzen
askazoriz
bizitza!
ama 2. astia. DIOAT. badiaguk. hemen. STOP
reagge: ... ... that train i need you sto

Urrutizkin grisaren urruneko mugetan
ez zaitut lehen bezain maiz
aurkitzen eta
abotsaren sukratuaz ments nago.
ikasten ari naiz.
monologatzen.
begirada orlegiez gogoratzen ere.
abotsaren sukratuaz ments nago.
agian
gaur
urrutizkin grisaren urruneko mugetan

Urmael geldoetan urtzen da hitza
denbora hertsitzen doanean
neguaren hatzetan

nola salba dezakegu
irauteko desira buruko meandreen
apokalipsiatik?

irauteko desira buruko meandreen
urmael geldoetan urtzen da hitza

Utziko ditugu bihotzetan preso diren haizeak
piztu dizkiguten suak eztitzen
utziko ditugu haizeak mugetaraino bidaiatzen
haurren eskuak tinkatzeko
laztanez kargaturik itzultzearren
utziko ditugu haizeak gero iparraldeko euriz
erditzen irria lora dedin
hatsaren ezpain ikaratietan
utziko dugu eguzkia gure larruak
erretzen hezurrak hauts arin bilaka
ditezen eta
utziko dugu amodioa bide bazterrean
bakardadearekin monologatzen.

Xarmangarriak dira telefonoak zeharkatzen
dituzten ahots apalak
xarmangarriak eta hunkigarriak
urruntasunaren ispiluetan lehertzen
diren haur kantak
kristalaren parekoak haur kantak
zeruaren ahuspean
malkoaren ordezkari lainoetan
baikor darraitelarik
xarmangarriak ondarrean ilargiaren jokoak
seaska guzien aldamenean
gure ñiñañoei
loaren bideak irekitzen dabiltzalarik.

ZALDIBIARANTZ SEASKA KANTA

Munduaren norantza
beldurrak derama
heriotzaren dantza
laster gure zama

haizea da etortzen
zaldibi aldetik
hitza ere erortzen
euri sartaldetik

lagunmina zaitudan
ibaien ezpondan
hasi natzaizu udan
historio kondan

nere gaurko kantua
dabila airatzen
itzul asmoz hantua
emeki pairatzen

zuretzat iratzetan
malkoaren ordez
doa harri latzetan
amorea gordez

dezagun poza besti
bion ezpainetan
begira zeinen ezti
urtxoa gainetan

loak hartuko zaitu
lasai azkenean
hegoak erein baitu
ur larrazkenean

Zatoz maitea exil honen bihotz mineraino
taupaden zarataz auhal gaitezen
ilunegiak diren arratsetan.
ihardokitzearen erruz
gorputzak sumendi anker bihurtu direnean
zapartatzeko prest gaude.
atomoak gara
barneko exil handiaren jabeak eta eskuen
desirak haragiaren emeak
jabaltzen ditu amodio deitzen den artean

Zeru grisean miruak dantzan
ainaratxo lo egizan
gure egunak dauden balantzan
biharkoaren gerizan,

hosto ankerrak ipar haizean
deman abesti berriak
alai ditzake goiz garaizean
mendiak eta herriak,

atzo ase naun amets belarrez
hitarik urrun indar beharrez
pobre galduaren gisan,

hamar bat urtxo eder hegalez
itzultzen ditun bide legalez
biharkoaren gerizan.

Zilegia dea amodioari oinarri sentimentalik
ez aurkitzea
non ez den herri zapalduen elkartasunean?
ilunaren bularrak ausikitzen ahal direa
iraultza etorriko
delako esperantzaz globoa zartarazi artean
amodioaren oinarriak aurkitzeko?
esklabotasunaren musuak sabel antzutuetako
arroiletan eztiak direla
nork sinets lezake
kateek mihiseak herdoiltzen dituztelarikan
minaren erresuman?
itsas gainetan lasterka ibil gaitezkea ere
hegoaren haizea
biloetan ahizpatasunaren mugetaraino
hats
hatsanturik
askatasunaren belak ortzaizean ez direnean
oraindik iragarriak?

Zure oinazeek ez dute oinarri razional izpirik zama abere paranoikoa zarela diote eta egunak purruskaturik bururatzen dituzu mouloud edo fatiharen gisara salopri di faranze marmarikatuz metroaren aho gosetian sartzean. gorrotoa hazten zaizu bihotzean herio gogoz hantzen zara gero esku ezkerreko zain meheak ibai gorri emankor amesten dituzkezu jarrai putain merde zer dela barbarian behera noa.

Zzaj zzaj zzaj gau honetan ukan dut bigarren aldikotz aurten Atenasen bisita bere huntzar begiekin galdatzen zidalarik arto eremurikan banuenez ereinik partitu aintzineko urteetan zehar

zzaj zzaj zzaj eta banindabilan solasean ari ziren jendeen artetik batzuk jaten bestelako ausarik gabe gehienak ezazolati zarata egile egunerokotasun bekaiztia Atenas hurbildu zen bitartean ni angustiak urkatua heriotz nuela behar

zzaj zzaj zzaj dantzara gonbidatu ninduenean Atenasen ahurrak behatzak arros dituen senti amoltsuaren gisara senditu nituen eztiz ezti soinean ibiltzen gizaki asekaitzak baztertuz ongi nintzen eta erran zidan hator ene amets belar

zzaj zzaj zzaj ongi nintzen eta erran zidana

arratsean nekez ahantziko dut pianoa aditzez ilargi beteko gauez gogoratuko baita haragia «dantza hau gu biontzat da ez arren eskapatu goibel uzkur hemengoa zara loaren bihotzekoa eta jazz...» zorionaren oroimin hatsa sumatu nuen musika ararteko zelarik hain hauts hain mehar